


Heriotzak % 1,7 gehitu dira Euskal AEn 2024ko bigarren hiruhilekoan

COVID-19ak 64 heriotza eragin ditu, duela urtebete baino % 26,4 gutxiago

Eustaten datuen arabera, 2024ko bigarren hiruhilekoan 5.357 pertsona hil dira Euskal AEn, aurreko urteko aldi berean baino 91 gehiago (+%1,7). Aurreko urteekin alderatuta, 2024ko bigarren hiruhileko honetako heriotza-kopurua txikiagoa izan da 2022koa baino (5.787 heriotza, -%7,4), 2021ekoa baino (5.418, -%1,1) eta 2020koa baino (6.073, -%11,8); baina handiagoa izan da 2019koa baino (5.067, +%5,7) baita 2010-2019 aldiko batez bestekoa baino ere (4.876, +%9,9).

Euskal AEko egoiliarren heriotzak, hilabeteka



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Araban eta Bizkaian gehitu egin ziren heriotzak: Araban % 11,8 gehiago (770 pertsona) eta Bizkaian % 3,4 gehiago (2.861 pertsona). Gipuzkoan % 4,6 jaitsi ziren, 1.726 hildakorekin. Sexuen arabera, 2.727 emakume eta 2.630 gizon hil ziren; hau da, % 2,7ko igoera emakumeentzat eta % 0,7koa gizonentzat.

Bigarren hiruhileko honetan izandako heriotzen artean, 8 urtebetetik beherakoak izan ziren eta 101 ehun urtetik gorakoak (% 0,1 eta % 1,9, hurrenez hurren).

Heriotzak bizilekuaren lurraldearen, betetako adinaren, sexuaren eta heriotza-hilabetearen arabera (1). 2024/II

	2024/II		2024/I				2023/II			
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)		KOP	%	Gehikuntza (%)	
HERIOTZAK	5.357	100,0	6.238	100,0	-14,1		5.266	100,0	1,7	
Egoitza duen lurraldea										
Araba / Álava	770	14,4	804	12,9	-4,2		689	13,1	11,8	
Bizkaia	2.861	53,4	3.402	54,5	-15,9		2.768	52,6	3,4	
Gipuzkoa	1.726	32,2	2.032	32,6	-15,1		1.809	34,4	-4,6	
Adina										
1 urtetik beherakoak	8	0,1	8	0,1	0,0		7	0,1	14,3	
1-19 urte	6	0,1	12	0,2	-50,0		8	0,2	-25,0	
20-39 urte	31	0,6	28	0,4	10,7		35	0,7	-11,4	
40-59 urte	300	5,6	347	5,6	-13,5		322	6,1	-6,8	
60-79 urte	1.506	28,1	1.666	26,7	-9,6		1.526	29,0	-1,3	
80-99 urte	3.405	63,6	4.049	64,9	-15,9		3.270	62,1	4,1	
100 urte edo gehiago	101	1,9	128	2,1	-21,1		98	1,9	3,1	
Gizonak	2.630	100,0	3.005	100,0	-12,5		2.611	100,0	0,7	
1 urtetik beherakoak	6	0,2	5	0,2	20,0		5	0,2	20,0	
1-19 urte	4	0,2	6	0,2	-33,3		7	0,3	-42,9	
20-39 urte	23	0,9	17	0,6	35,3		28	1,1	-17,9	
40-59 urte	188	7,1	259	8,6	-27,4		197	7,5	-4,6	
60-79 urte	961	36,5	1.058	35,2	-9,2		966	37,0	-0,5	
80-99 urte	1.431	54,4	1.642	54,6	-12,9		1.390	53,2	2,9	
100 urte edo gehiago	17	0,6	18	0,6	-5,6		18	0,7	-5,6	
Emakumeak	2.727	100,0	3.233	100,0	-15,7		2.655	100,0	2,7	
1 urtetik beherakoak	2	0,1	3	0,1	-33,3		2	0,1	0,0	
1-19 urte	2	0,1	6	0,2	-66,7		1	0,0	100,0	
20-39 urte	8	0,3	11	0,3	-27,3		7	0,3	14,3	
40-59 urte	112	4,1	88	2,7	27,3		125	4,7	-10,4	
60-79 urte	545	20,0	608	18,8	-10,4		560	21,1	-2,7	
80-99 urte	1.974	72,4	2.407	74,5	-18,0		1.880	70,8	5,0	
100 urte edo gehiago	84	3,1	110	3,4	-23,6		80	3,0	5,0	
HERIOTZA-HILABETEA										
Apirila	1.844	34,4			1.799		34,2	2,5		
Maiatza	1.780	33,2			1.720		32,7	3,5		
Ekaina	1.733	32,4			1.747		33,2	-0,8		

Data 2024ko Azaroaren 19a

Iturria: Eustat, Heriotzen Estatistika

Tumoreek eta zirkulazio-gaixotasunek heriotzen % 54,2 eragin zituzten

Heriotza-kausa nagusiak tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren, 1.607 eta 1.295 heriotza eragin baitzituzten, hurrenez hurren. Beraz, bien artean heriotzen % 54,2 izan ziren. Hirugarren heriotza-kausa arnas sistemako gaixotasunak izan ziren, 392 heriotzarekin. COVID-19ak 64 heriotza eragin zituen (heriotza guztien % 1,2).

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexuaren arabera: gizonen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumeen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia zirkulazio-aparatuko gaixotasunak izan ziren eta tumoreak bigarren.

Heriotzak heriotza-arrazoiaren eta sexuaren arabera (1). 2024/II

	2024/II		2024/I		Gehikuntza (%)	2023/II		Gehikuntza (%)
	KOP	%	KOP	%		KOP	%	
HERIOTZAK	5.357	100,0	6.238	100,0	-14,1	5.266	100,0	1,7
Heriotza-kausak								
Guztira								
Neoplasiak	1.607	30,0	1.571	25,2	2,3	1.483	28,2	8,4
Zirkulazio sistema	1.295	24,2	1.595	25,6	-18,8	1.362	25,9	-4,9
Arnas sistema	392	7,3	685	11,0	-42,8	343	6,5	14,3
Nerbio sistema	360	6,7	418	6,7	-13,9	330	6,3	9,1
Txegoste sistema	249	4,6	266	4,3	-6,4	265	5,0	-6,0
Gainerako kausak	1.454	27,1	1.703	27,3	-14,6	1.483	28,2	-2,0
COVID-19 baieztatuta	64	1,2	88	1,4	-27,3	87	1,7	-26,4
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
Bestelakoak	1.390	25,9	1.615	25,9	-13,9	1.396	26,5	-0,4
Gizonak								
Neoplasiak	949	36,1	939	31,2	1,1	867	33,2	9,5
Zirkulazio sistema	608	23,1	761	25,3	-20,1	640	24,5	-5,0
Arnas sistema	204	7,8	319	10,6	-36,1	182	7,0	12,1
Nerbio sistema	158	6,0	167	5,6	-5,4	146	5,6	8,2
Txegoste sistema	113	4,3	120	4,0	-5,8	134	5,1	-15,7
Gainerako kausak	598	22,7	699	23,3	-14,4	642	24,6	-6,9
COVID-19 baieztatuta	31	1,2	38	1,3	-18,4	37	1,4	-16,2
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
Bestelakoak	567	21,6	661	22,0	-14,2	605	23,2	-6,3
Emakumeak								
Neoplasiak	658	24,1	632	19,5	4,1	616	23,2	6,8
Zirkulazio sistema	687	25,2	834	25,8	-17,6	722	27,2	-4,8
Arnas sistema	188	6,9	366	11,3	-48,6	161	6,1	16,8
Nerbio sistema	202	7,4	251	7,8	-19,5	184	6,9	9,8
Txegoste sistema	136	5,0	146	4,5	-6,8	131	4,9	3,8
Gainerako kausak	856	31,4	1.004	31,1	-14,7	841	31,7	1,8
COVID-19 baieztatuta	33	1,2	50	1,5	-34,0	50	1,9	-34,0
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
Bestelakoak	823	30,2	954	29,5	-13,7	791	29,8	4,0
(1) Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira								

Data 2024ko Azaroaren 19a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen hiru lurralde historikoetan

Euskal AEko hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen 2024ko bigarren hiruhilekoan, 2.160 pertsonako jaitsierarekin. Hiru lurraldeetan galdu dira biztanleak: Bizkaian 1.331 pertsona, Gipuzkoan 579 eta Araban 250.

COVID-19ak eragindako heriotzak 64 izan ziren 2024ko bigarren hiruhilekoan

COVID-19ak 64 heriotza eragin zituen, hau da, heriotza guztien % 1,2. Kopuru hori 2023ko hiruhileko berean baino 23 gutxiago da (-%26,4). Heriotza horiek guztiak COVID-19agatik izan ziren, eta beste 7 heriotza izan ziren zeinetan COVID-19a ziurtatutako heriotza-kausen artean egon zen, baina funtsezko kausa izan gabe.

Euskal AEko heriotzak, lurralde historikoaren, bizilekuko udalerriaren (>40.000 bizt.), sexuaren eta adinaren arabera, COVID-19rekin lotutako heriotza-kausei jarraiki. 2024/II

	Heriotzak guztira	COVID-19 guztira	COVID-19 baieztatuta	COVID-19 probalea
Euskal AE	5.357	64	64	0
Bizileku-lurralde historikoak				
Araba/Álava	770	8	8	0
Bizkaiak	2.861	42	42	0
Gipuzkoa	1.726	14	14	0
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)				
Barakaldo	279	6	6	0
Basauri	135	2	2	0
Bilbao	954	14	14	0
Donostia / San Sebastian	481	6	6	0
Getxo	173	4	4	0
Irun	142	1	1	0
Portugalete	127	0	0	0
Santurtzi	107	3	3	0
Vitoria-Gasteiz	568	7	7	0
Sexua				
Gizonak	2.630	31	31	0
Emakumeak	2.727	33	33	0
Adina				
40 urtetik beherakoak	45	0	0	0
40 urtetik 59ra	300	0	0	0
60 urtetik 79ra	1.506	17	17	0
80 urte edo gehiago	3.506	47	47	0

Data 2024ko Azaroaren 19a


Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Lurraldeka, zifrarik altuena Bizkaiari dagokio (42), ondoren Gipuzkoari (14) eta azkenik Arabari (8). Hiriburuei dagokienez, Bilbo nabarmendu behar da, 14 heriotza eragin baititu COVID-19ak; ondoren, Gasteiz (7) eta Donostia (6) daude. Barakaldok ere 6 heriotza zenbatu ditu COVID-19agatik.

Emakumeen heriotza kopuruak (33) gizonezkoena (31) gainditu zuen, eta, adinaren arabera, 80 urtetik gorako pertsonena izan zen eragin handiena izan zuen taldea, COVID-19aren ondoriozko heriotzen % 73,4 gertatu baitziren, 47 hildakorekin.

Heriotza gehienak Euskal AEko ospitaleetan gertatu ziren (% 89,1, % 85,1 2023ko bigarren hiruhilekoan), ondoren etxebizitzetan (% 9,4, % 3,4 2023ko bigarren hiruhilekoan) eta egoitza soziosanitarioetan (% 1,6, % 11,5 2023ko bigarren hiruhilekoan).

Bizilekua Euskal AEn zutenen heriotzak. Hileko datuak



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62